

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Gorosarri plazako
lanak /08**

KULTURA

**Takolo, Pirritx
eta Porrotx /09**

LEINTZ GATZAGA

**Uso denboraldiak
amaiera jo du /10**

Negu Kulturala

**Egitarau dotorea gertatu digute negurako: kontzertuak, jolas
parkea, pailazoak... hori eta gehiago guztion gozagarri.**

kontzertuak
pailazoak
jolasparkea
eta abar.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 29
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 30
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 12:30ean.

ARKARAZO
Zapatuan 11:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

SERGEI OSOKIN AKORDEOILARIAREN KONTZERTUA
Sergei Osokin errusiar akordeoilari gazteak kontzertua emango du abenduaren 5ean, 20:00etan, Andre Mariaren Zeruratze parrokiari.

SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAK BATZARRA
San Martin-San Jose kofradia batzar orokorra egingo du, abenduaren 8an, 11:00etan, Kurtzebarri eskolan. Ekintza txostena irakurriko dute, eta kontu balantzea aurkeztu; Era berean, zuzendaritza talderako kide berriak aukeratu dituzte. 12:00etan meza izango dute, urtean hil direnen alde.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA
Erakusleho lehiaketa antolatuko du Kultura Sailak. Abenduaren 8tik 31ra bitartean egingo dute, eta gura duten komertzio guztiek har dezakete parte.

ZURE OHAR ETA DEIALDIAK ARETXAGAZETA-N
Aretxabaletarrei ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:

Tel.: 943 79 86 21
E-postaz:
aretxagazeta@goiena.com

LORAMENDIRENAGENDA

WEBGUNA ABIAN
Loramendi EEk webgunea jarri du abian KZGunearen laguntzarekin. Oraindik osatzea falta zaie, baina dagoeneko ikus daiteke helbide honetan:
<http://comunidades.kzguna.net/loramendi>.

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI
Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei laguntzeko Seaskako egutegiak dituzte salgai Loramendi EEn.

ORAINDELAZURTEARETXABALETAN

Gainezka egiteko gutxi falta zitzaion Urkuluri

Azaroaren 15ean hasi eta abendua bitartean gogotik egin zuen euria 1996an. Hori horrela, % 19ko igoera izan zuen urtegiak. Egunik euri-tsuenak izan ziren: azaroaren 17a, 29,3 litro botata; 19a, 25,4 litroekin; eta 25a, 27,9 litroekin. Abenduaren 2an, %88 zegoen beteta urtegia; aurreko urtean, berriz, % 48.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Izarratu"



Zerua izarrez beteta.
—Atzo etxera etorri giñanian zerua izarratu zeuan.

GORKA ORTEGA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Maider Azkargorta
25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Xabier Zubillaga
29an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jaione Olabe
30ean. Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik.




ARETXABALETA
Mikel Umerez
1ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Xabier, Iñaki eta Aitor.



ARETXABALETA
Sandra Labrador
2an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nagore Uriarte
4an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jabier Uriarte
5ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak
24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Kilkerren hotsak'

Uriarte gerran ibilitako agurea da nobela honetako protagonista eta kontalaria. Etxera etorri zaion bisitari batekin izango duen elkarriketak eta hari esaten ez dizkionak baina gogoratzen dituenak osatzen dute istorioa. Bizkaian gertatutakoak kontatzen ditu, frankisten eskuetan erori



KILKERREN HOTSAK

Edorta Jimenez
Susa, 2003
239 orrialde

aurrekoak. Tartean pertsonaia historikoak agertzen dira eta benetako ekintzak, baina Uriarte eta beste zenbait pertsonaia asmatutakoak dira. Robert Capa argazkilaria, Mallona eta beste zenbait pertsonaia historiko liburuaren bukeran agertzen dira, nor izan ziren azalduz. Liburu interesgarria gerrako garai latzetan murgiltzeko.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Lubia
oinetakoak



beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

Expres




Santakurtz 16
943 79 23 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Jon Diaz



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Negu Kulturaleko egitarauen ze gehittuko zeuke?



AMPARO MELGAR
Langillie



AGUSTIN GONZALEZ
Langillie



NURIA FDZ DE ARROIABE
Langillie



IKER PEREZ
Ikasle



ANA ESPESO
Langillie



JOKIN ÜRRUTIA
Langillie

Urtero egiten dauena ondo dauela uste dot. Egixe esatien, ez dauket kontzertuetara eta holakuetara fateko denborarik. Biherbada, umiendako gauza gehixau jarri biherko leukie.

Ez dot ezer faltan igerten. Baiñe gaztiondako kontzerturen bat edo bestelako animaziño apur bat eskatuko neuke. Bestela, herrixe hildde egoten da. Dana dala, Udalan gaixe da hori.

Egixe esatien, ume txikiñekin ez dauket ezertarako denborarik. Normalien egoten dana nehikue dala uste dot. Poxpolin Park eta holakuek oso ondo egoten die umiendako.

Herrixei giro apur bat jarteko kontzertuek egittie eskatuko neuke. Jaixetan ez da ezer egoten eta gaztiok, azkenien, Mondraguera faten gare. Herriko taldiekin antolatuko neuke kontzertue.

Umiendako joku gehixau eskatuko neuke. Gabonetako oporrak luziek izeten die eta umiek eurek denbora luzie eukitten daue. Nagusixendako, barrez, ez dot ezer faltan igerten.

Neu dauenakin konformetan naz. Ez dot ezer falta igeriten. Etxien ez dot honen gainen berba egiten; hortan, etxekuen eritzixe ezin esan. Dana dala, neure ustez, egitarau ondo egoten da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK OZTOPO ARKITEKONIKOAK Askotan ez gara konturatu ere egiten, baina batzuek benetan zaila da gure kaleetan zehar ibiltzea. Gorpildun aulki baten doanarendako, esaterako, herriko plaza iristea ia ezinezkoa da. Beste horrenbeste, denda eta tabernatara sartzeko. Ume-kotxeekin dabilzanak ere ez dute lan erraza izaten. Guztion onerako kendu ditzagun oztopo arkitektonikoak. /A.L.

ETABARRUAN...

ENPRESA /04

KULTURA /05

KIROLAK /06

Doilan kooperatiba

Lau gaztek kooperatiba berri dugu herrian: Doilan. Galdaragintza fina egingo dute bertan.

Negu Kulturaleko egitaraua

Gertu dauka Kultura Sailak negurako egitaraua. Kontzertuak eta Gabonak izango dira protagonista.

Odilo Vazquezi elkarrizketa

Odilo Vazquez karate taldeko entrenatzailea da. Gainera, laster karateko arbitro izan liteke.

ASTEKODATUA

22.806

EURO GASTATU DITUZTE NEGU KULTURALA ANTOLATZEN

Kultura Sailak 22.806 euro gastatu ditu aurtengo Negu Kulturaleko egitarauan. Ekitaldirik garestiena Takolo, Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna da. Ekitaldi hori 3.016 euro kostatzen da.

BESTEKEESANA

Joan den urtean egin nuen lehenengo aldiz Donostiako Maratoia. Eta aurrean, iazko marka erreferentzia moduan hartuta hobetzeko asmoz joan naiz.

Aurrez jarritako helburuak bete ditudala esan dezaket. Lehenengo maratoiko marka hobetu dut lau bat minututan, eta pozik nago. 3 ordu eta 14 minututan egin dut bigarren maratoi hau; marka xumea da niretako.

Urte osoan zehar kirola egiten dut, baina maratoian parte hartzeko azken erabakia irailan hartu izaten dut; gutxi gorabehera Behobiarako hiru-lau aste inguru falta direnean, hain justu. Uda bukatzen den garai hori plan berriak egin, eta helburu berriak finkatzeko sasoa izaten da niretako.

ASIER BARRAINKUA
Arrasate Irratia/03-11-24

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Itxaropenaren bideak

Udazkenaren bihotz-bihotzean aurkitzen gara, eta alde batera, eta bestera begiratzen badugu naturak berak emango digu honen berri. Garai honetako kolore bereziak, gure kale eta mendietan hostoak lurrean, zuhaitzak gehienak biluzik, egunak mozten... Eta badirudi guzti honek heriotzaz hitz egiten digula. Baina, bestalde, badakigu ere itxaropen seinale dela, denbora asko baino lehenago bizi berri bat erntzen hasiko delako.

Eta gogoeta hau, eguneroko bizitzara ekarri nahiko nuke, azkenaldi honetan egoera zailetan murgilduta baikaude, eta itxaropenak ihes egiteko arriskuan. Aldizkari-egunkarietara begiratu eta albiste ilunak; egun berri bat hasi eta zer gertatuko den kezkarakin; egutegira begiratu eta hainbat oroigarri irakurri: bakearen aldeko nazioarteko astea,

tolerantziaren aldeko nazioarteko eguna, haurren eguna, tratatu txarrak jasotzen duten emakumeen aldeko eguna; gure herrian amaitzen ez diren eztabaidak...

Ez dira aipamenak bakarrik, ez; baizik eta gure munduan gizakiak ereiten duen heriotzaren seinale. Baina ez dugu hor gelditu behar, aipamenean bakarrik, baizik eta justiziak eta biziak aginduko duen gizarte bat eraikitzaera bultzatu behar gaitu guzti honek. Eta hor dago gure itxaropenaren

sustraiak.

Badakit ez datozela oso egun aproposak horrelako gogoeta bat egiteko gure barruan, hasiak baitira gure etxeetan gabonetako gozokiak eta opari ederren oihartzunak azaltzen, baina ez litzateke gaizki egongo leku pixka bat egitea gure bizitzan gehien sufritzen dutenei.

Hori ere itxaropena sortzeko eta ereiteko bidea baita!

"... hostoak lurrean, zuhaitz gehienak biluzi, egunak mozten... Eta badirudi guzti honek heriotzaz hitz egiten digula"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilitzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleko
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Izenak eta izanak

Azaroko azkenengo aste bukaerie daukogu aurrez aurre. Hillebete eskas falta da Gabonetarako baiñe kaleko arbola batzuei bonbillak jarten ibilli diela esan dustie. Aurten, gaiñera, inoiz baiño argi gutxiarri jarri biher dauela... Hortaz, zetarako halako prixie? Abenduko ekitaldixen gaiñeko egitarau be egunokaz buzoneau biher ei doskue. Egixe esateko ez dot gauza barririk topetaik espero, eta kaleko argixek be gutxitxu... Edurrik egingo al dau Gabonetan!

Hainbeste Gabon kontukin neu be aurreraketan hasi naz. Joan zan domekan, ostera, Donostiako Maratoia egin euien eta gure herritik be joan zien batzuk. **Asier Barrainkua** izan zan bat, eta **Rubio** medikue beste bat. Honek, gaiñera, badauzko urtetxo batzuk eta osasun arazuek be izen zittuen. Argi dau guztiz errekueraute dauela, Maratoie ez dau edozeinek egitten-eta.

Telesibiñoko kontuek be aittetu gureko nittuzke. Izen be, aretxabaletar bat daukogu Etb-2ko *Date el bote* saiuen. **Peta** da bera. Ia dirutxue dakarren etxera.

Bukaketako ondo pasau aste bukaeran kintto bazkarixe edo afarixe daukötzuonok. Neuk be badauket, eta horretan saiatuko naz.

ENPRESA/ Lau bazkidek jarri dute abian galdaragintza fineko erremintak egingo dituen kooperatiba

Galdaragintza fineko erremintak egiteko Doilan kooperatiba sortu dute lau bazkideren artean

MIRARI ALTUBE


Abuztuan osatu zuten Doilan Kooperatiba Elkarte hiru lagunek. Gaur, ostera, lau bazkide dira, eta galdaragintza fina dute lanbide. Aretxabale-tako Institutuak utzi dizkie makinak, eta lankidetz hitzarmena sinatu dute ikasleekin lan egiteko.

Basabe industrialdean du egoitza sortu berri den kooperatibak. Bulegoa eta lantegia dauzkate bertan, eta inguruko lantegiek galdaragintza alorrean dituzten beharrak ase guran datoz.

BAZKIDEAK ETA LAGUNTZAILEAK

Orain dela hiru urte bururatu zitzaien galdaragintza fineko enpresa sortzea. LKS enpresak egindako azterketak kooperatiba sortzea gomendatu zien, eta hala, abuztuan sortu zuten Doilan Kooperatiba Elkarte. Hiru lagunek sortu zuten orduan; gaur lau dira, tartean aretxabaletar bi. Bazkide laguntzaileak ere badituzte: Aretxabale-tako eta Eskoriatzako udalak eta Aretxabale-tako Institutua; makinak utzi dizkie honek. Diruz ere lagun du diete beste batzuk: Fagorrek, Ulmak eta Oñatiko Udalak.

Galdaragintza fineko erremintak egiten dituzte Doilanen.



Gorka Madinabeitia eta Ander Elortondo aretxabaletarrekin batera arrasatear bat eta bergarar bat dira Doilaneko bazkideak.

Sei milimetroz azpiko lodiera duten materialekin egiten dute lan, gehienbat bi milimetroekin. "Galdaragintza tradizionalako enpresa asko dago gure bailaran, baina fina egiten duen

gutxi; horrek animatu gintuen", dio Gorka Madinabeitiak.

INSTITUTUAREKIN LANKIDETZAN

Aretxabale-tako Institutuarekin lankidetz hitzarmena sinatu du,

gainera. Horren arabera, galdaragintza ikasten dabilzan ikasleek praktikak egingo dituzte Doilanen. Aurrera begira ibarreko beste eskola batzuekin ere sinatu gurako lituzkete hitzarmenak.



Astlehenean hasi ziren Gabonetako argiak jartzen

Hasi dira gurean ere Gabonetako argiak jartzen. Astlehenean hasi zen Udalarendako lan egiten duen Vela argiketaria zuhaitzei bonbillak jartzen. Aurten, ordea, lau zuhaitz bakarrik apainduko dituzte herrian: Loramendi kalean dagoen bat, Santa Kurtz kalean beste bat, zaharren egoitza aurrekoa eta Durana kalekoa. Udaletxean eta kultura etxean, bestalde, Olentzero panpinak jarriko dituzte. /M.A.

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA

IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETAKO

AMIETS
TABERNA

Iparragirre 4

Tel.: 943 79 01 29

ARETXABALETAKO




Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)

Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETAKO

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

KULTURA/ Urteroko ekintzak eta ikuskizunak izango dira protagonista aurtengo neguan

Udaleko Kultura Sailak gertu dauka aurtengo Negu Kulturaleko egitaraua

M.A.

Gertu dauka Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak aurtengo negurako egitaraua. Musika eta Gabonetako ekintzak ditugu nagusi bertan; hortaz, musika gustuko dutenek eta umeek izango dute zerekin gozatu abenduaren 5etik urtarrilaren bukaerara.

Urtero antolatzen du Udaleko Kultura Sailak negurako egitaraua. Egunotan banatuko du herriko etxe guztietan, eta bertan zer aurkituko dugun azalduko

dizuegu: kontzertuak eta Gabonetako ekitaldiak, esaterako.

KONTZERTU UGARI

Aurtengo abendua kontzertuz gainezka dator. Leizarra Musika Eskolako musikariek emango dituzte gehienak, batzuk Musika Eskolan bertan eta beste batzuk Kurtzebarri eskolan. Akordeoi Orkestrak, bestalde, Sergei Osokin akordeoilari errusiarraren gonbidatu du, eta abenduaren 5ean emango du kontzertua. Akordeoi Orkestrak berak ere eskainiko die aretxabaletarrei kontzertua hilaren 20an. Bukatzeko, abenduaren

28an, Aretxabaleta Abesbatzak egingo du emanaldia, parrokiaren.

GABONETAKO EKINTZAK

Kontzertuez gain, Gabonetako ekintzak ere izango dira protagonista. Gabon egunean, esaterako, Gabon kantuak abestuko dituzte ume eta gurasoek eta arratsaldean Olentzero etorriko da. Urte zahar egunean, berriz, Bizar Zuri izango da herriaren eta urtarrilaren 5ean Errege Kabalgata egingo dute. Bukatzeko, urtarrilaren 24an, Takolo, Pirritx eta Porrotx izango dira gurean, umeen gozamenarako.




ARTIBOIA

Gabon egunean umeek eta gurasoek Gabon kantuak abestuko dituzte kaleetan.



Bukatu dituzte ospakizunak Muru-Alde elkartearen

Bukatu dituzte Muru-Alden 50. urteurreneko ospakizunak. Joan zen astean Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko Migel Madariaga eta Julian Gorospe arduradunak eta Haimar Zubeldia, Iban Mayo, Joseba Zubeldia eta Dioni Galparsoro txirrindulariak egon ziren. Eta zapatuan omenaldia egin zieten ohorezko bazkideei. Bukatzeko, bazkaria izan zuten Murua eta Mendizabal bertsolariekin. /M.A.



**LURRINDEGIA
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



**Angelines
AUTOZERBITZUA**

*Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea*

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA


**OSKAR
garajea**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA
www.garajeoscar.com



**Taberna
Berri
jatetxea**

Durana 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67




Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68



**Hirusta
Jatetxea**

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

ODILO VAZQUEZ/KARATE ENTRENATZAILEA ETA EPAILEA

"Gaztetxoak, batez ere, karatean gogotsu dabilzala ikusten dut"

A.L.


Odilo Vazquez herriko karate taldeko entrenatzailea da. Horrez gain, txapelketetan epaile lanak egin izan ditu. Domekan, berriz, arbitro izateko azterketa egingo du Bergaran jokatu den Euskadiko Karate Txapelketan.

Karate entrenatzailea eta epailea zara aldi berean. Zelan da hori?

Garai baten txapelketetara joaten ginenean antolatzaileek jartzen zituzten epaileak, baina orain ez da inor horretaz arduratzen; beraz, guk egin behar izaten dugu. Edozein txapelketetara hamar jokalarik baino gehiago eramaten badira, gutxienez epaile bat ere eraman behar da. Arrazoi horregatik atera nuen epaile titulua; nolabait esateko, derriortu egin naute.

Eta zer ikasi behar izaten da epaile izateko?

Eskuaz egiten diren keinuak eta terminologia zehatza ikasi behar dira. Karatean dabilen edonorendako erraza da. Horrez gainera, epaile izateko gutxienez gerriko beltza izatea eta aurrez



A.L.

"Bergarako txapelketan, zoritxarrez, ez da herriko karatelaririk egongo"

jarrita dagoen maila jakin batera heltzea eskatzen dute.

Eta orain, epaile izatetik arbitro izatera pasatuko zara?

Bai. Azterketa teorikoa egin da daukat eta orain, domekan Bergaran jokatu den Euskadiko Txapelketan praktikoa egin beharko dut.

Zein da epaile eta arbitro baten arteko diferentzia?

Epaileak arbitroaren laguntzaileak izaten dira. Futboleko marrazainek egiten dutena egiten dute gutxi gorabehera. Gainera, epaileek eskualdean egiten dute euren lana eta arbitroak eskualdetik kanpoko txapelketetan ere ibil daitezke.

Etziko txapelketan egongo da herriko jokalaririk?

Zoritxarrez ez. Karatolari bik zuten asmoa parte hartzeko eta biak lesionatuta daude.

Eta gainerakoak? Zelan dagó taldea?

Ondo. Gaztetxoak, batez ere, gogotsu dabilzala uste dut. Gero, nagusiago egiten direnean, ikusi egin behar berdin segitzen duten edo ez.

Herrian kirol elkarte bakarra sortzeko ideia ondo ikusten duzu?

Bai. Karatean gure salbazioa izango litzateke.

FUTBOLA

Bergararen aurka jokatu du UDAk oraingo domekan Ibarra futbol zelaian

Pasa den asteburuan, ligako talderik indartsuenetakoa den Santo Tomas Lizeoari irabazi zion UDAk, 1-2. Aspaldian burumakur zebiltzan Igor Gordobilen mutilak, eta partidu horrek berriz ere konfiantza hartzeko balio izan die. Bultzada horrekin neurtuko dituzte indarrak, hain justu, Bergararen aurka domekan. Derbia 16:30ean hasiko da Ibarra futbol zelaian.

PILOTA TXAPELKETA

Lagun arteko pilota txapelketako finalerdiak jokatu dituzte bihar, zapatua, Iturrigorrin

Kirol Zerbitzuak antolatutako lagun arteko pilota txapelketa azken txanpara iritsi da. Pasa den asteburuan final-laurdenak jokatu eta gero, oraingo asteburuan jakingo dugu nor doan finalera. Bi talde osatu dituzte, eta bakoitzean irabazten duenak jasoko du finalerako txartela. Eta beste bikote biek 3. edo 4. geratzeko partidua jokatu dute. Partidu guztiak bihar, zapatua, jokatu dituzte, 11:00etatik 13:00etara bitartean, Iturrigorrin.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Bergara

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Anaitasuna

Gazteak. Ohorezko liga.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.- Eibar

Lehenengo mailako gazteak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

Aretxab.- Azpeiti

Lehenengo mailako nagusiak.

Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

St. Lizeoa 1 UDA 2

Preferentea.

Martutene 2 UDA 4

Gazteak. Ohorezko liga.

UDA 1 Ostadar 2

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 0 Bergara 0

Lehenengo mailako kadeteak.

Almen/UDA 0 Eibar 0

Emakumezkoen liga.

Almen/UDA 4 Elgoibar 3

Emakumezkoak. Futbol 8.

Real Union 1 UDA 2
Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Zumaia 22 Aretxab. 11
Lehenengo mailako gazteak.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarriak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



GRUPO **RK UZ** 1950-2003

Zure
etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 28a / 147. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Gorosarri plazan egiten ari diren lanen inguruko kezkek azaldu dituzte auzotarrek

AINZANE GARDOKI

Eduardo Gorosarri plazan egongo da laster osasun etxe berria. Lanak hasita daude eta plaza inguruko urbanizazio lanak ere aurrera doaz. Gorosarri plazako 5,6,7, eta 8. zenbakietako atarteetako bizilagunek dituzten kezkek azaldu dizkiote alkateari.

Gorosarri plazako lau atarteetako ordezkariak Gorosarri egiten ari diren lanen inguruan dituzten kezkek azaldu gura izan udal-letxeko arduradunei. "Hasteko, argi utzi gura dugu gu ez gaudela inondik inora osasun etxe berriaren aurka. Osasun etxea hemen joango denez egokitzapen lanak egiten hasi dira. Lan horien inguruko kezkek eta horrekin batera kezkek ere baditugula jakinarazi diogu alkateari. Osasun etxera sartzeko egiten ari diren sarrerekin ez gatoz bat", esan digu Karmele Iglesiasek, atarteetako bizilagunen izenean.

HERRITARRON ARAZOA DA

Osasun etxe berria Gorosarri plazan egiten ari direla eta, Udalak hamar eguneko epea jarri zien ber-



Martitzen arratsaldean batu ziren Gorosarri plazako ordezkariak Eskoriatzako alkatearekin eta Hirigintzako zinegotziarekin.

tako bizilagunei zituzten kezka, iradokizun edo beste egiteko. Sei puntuz osatutako idatzia egin dute bizilagunek. "Lanekin aurrera doaz, eta guk ditugun ezadostasunak adierazi gura izan ditugu idatzi horretan. Osasun etxeraino

autoz sartzeko sarrera bakarra dago; frontoi paretik gora doan malda, hain zuzen. Malda hori estua da. Ez dira bi auto sartzen. Norbaitek esango du hori ez dela autoendako ibilbidea, baina zamaketa lanak direla-eta ibilgailuak ibil-

tzen dira gaur egun. Eta osasun etxea jartzen dutenean, ateraino joan beharko du batek baino gehiagok, bai pertsona nagusi batekin, bai ezindu batekin edo ume txiki batekin. Arazoa ez da gurea bakarrik, gaizki egiten ari diren hauek

eragina izango baitute osasun etxera datozen herritar guztiengan. Maldarena adibide bat da bakkari. Anbulantziak eta suhiltzaileen autoak ez dago sartzerik. Guk eta Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Koordinatzaileak ere esan dio hau guztia alkateari", dio Karmelek. "Oztopo arkitektonikoak kentzeko ahalegina egingo dute arduradunek, baina ez dira ondo ari. Nik argi daukat gauza bat: gurgpilezko aukian dabilzanek ez dutela legea egiten, eta egiten diren lanen ikuskapena ere ez dute gurgpilezko aukian dabilzanan egiten".

BILERA UDALAREKIN

Martitzen iluntzean alkatearekin eta Hirigintzako zinegotzi Josu Ezkurdiarekin batu ziren Gorosarri plazako ordezkariak. Udaletxeko arduradunen esanetan Gorosarri plazan egin diren lan guztiak legearen barruan egin dira. Dena dela, Juan Karlos Bengoak esan digu, bizilagunek egindako bi iradokizun, behintzat, kontuan hartuko dituztela: "Batetik, frontoi paretik gora doan malda zabaldu egingo dugu oinezkoen eta autoen bidea ondo bereiztuz. Eta bestetik, goian zabaldu egingo dugu malda autoak barrura sartu ahal izateko".



Kiroldegian eguzki-plakak jarri dituzte

Kiroldegian eguzki-plakak jarri dituzte. Orain dela hiru aste hasi zituzten plakak teilatuan jartzeko lanak. Bi fase izango dituzte lanok. Amaitu berri duten lehenengo fasean eguzki-plakak jarri dituzte teilatuan. Sortzen duten energia I-berdrolak erosiko du. Bigarren fasean, berriz, beste 48 plaka termiko jarriko dituzte teilatuan. Horiei esker igerilekuko uraren tenperaturari eutsi eta kiroldegian beharrezkoa den ur bero guztia lortu ahal izango da. Urtea amaitu orduko amaituko dituzte lanak.

LABUR

Eskoriatzak ere tranbia izan gura du 2007an

Eusko Jaurlaritzak 2007an jarriko du martxan Debagoieneko tranbiaren lehenengo fasea. Aurreneko fase honetan Aretxabaleta eta Bergara arteko ibilbidea egingo du tranbiak. Horren harira, Eskoriatzako arduradunek Eusko Jaurlaritzari eskatuko diote 2007an tranbia Intxaurtxueta auzoraino, behintzat, ekartzeko; hau da, lehen fasean tranbiaren ibilbidea Bergara-Eskoriatza izatea. Alkatearen esanetan lanok ez lukete kostu handirik izango eta errazak izango lirake.

Zer ikusi, zer entzun eta zertaz disfrutatu izango dugu asteburuan

AINTZANE GARDOKI

Batez ere umeak dituztenek izango dute bai zertaz gozatu asteburuan. Bihar, hilak 29, Euskal Herriko pailazorik ezagunenak kiroldegian izango dituzte azken ikuskizunarekin: *Poxpolin Marisorgin*. Euskarazko jostailuen erakusketa, berriz, kultura etxean egongo da ikusgai.

Ekitaldi ugari izan ditugun hila-betea ondo amaitzeko pailazoak izango ditugu. Horrez gain egitarau dotorea gertatu guran dabil Kultura Saila Gabonetara begira.

PAILAZOAK ETA JOSTAILUAK

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna izango dugu

bihar, kiroldegian. Sorgin izan gura duen neskato baten istorio dakarte oraingoan *Poxpolin Marisorgin* ikuskizunean, eta Gipuzkoako estreinaldia egingo dute Eskoriatzan.

Gaurtik aurrera, bestalde, jostailu erakusketa izango dugu ikusgai kultura etxean Gabonetan zer oparitu erabaki ezinik dabilzan gurasoan lagungarri. Gabonetara begira, gainera, egitarau oparoa gertatu gura dute Kultura Saileko arduradunek. Urtero moduan marrazki lehiaketa, erakusleho lehiaketa, jolas parkea kiroldegian, kontzertuak, Olentzero eta beste horrenbeste ekitaldi eta ikuskizun izango dituzte umek, gazteek eta helduek herrian.



ARTIBOIA

Oraingoan ere Gipuzkoako estreinaldia Eskoriatzan egingo dute pailazoek.

Bai Euskal Herriari! taldea, gurean ere lanean

AINTZANE GARDOKI

Aste honetako eguazten iluntzean bilera egin zuten herriko hainbat talde, elkarrekin ikastetxek, Bai Euskal Herriari! taldeak deituta. EHNA tramitatzeko lanean sendo jarraitzea du helburu taldeak.

Eskoriatzan ere EHNA tramitatzeko du helburu Bai Euskal Herriari! taldeak. Herriko talde eragileak

bultzatu gura ditu Bai Euskal Herriari! taldeak, elkarrekin ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko. Bestetik, abenduaren 13an eta 14an EHNA tramitatzeko kanpaina nazionala egingo dute, eta Eskoriatzan ere, egun bi horietan jai giroan "eskoriatzarrok herri bezala garena erakutsi gura dugu", esan digu taldeko kide Lorea Agirriak. Herriko taldeei kanpainen parte hartzeko laguntza eskatu zieten arduradunek.



ARTIBOIA

Herritarrek kanpainen parte hartzeraz animatu gura ditu Bai Euskal Herriari! taldeak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

IPUIN KONTAKETA

Gaur, egubakoitza, Jose Campanari ipuin kontalari argentinarrak emanaldia egingo du HUHEZI Fakultateko aretoan, gaueko 22:00etan.

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOEN ESTREINALDIA


Bihar, hilak 29, Euskal Herriko pailazo ezagunenak *Poxpolin Marisorgin* ikuskizunaren estreinaldia egingo dute Eskoriatzako kiroldegian, 17:00etan.

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkarrearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Gustora egoteko!

**Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63**

LABUR


Omenaldi beroa egin diete astean, HUHEZIn, istripuz hildako hiru ikasle bizkaitarrei

Dolu eguna izan zuten pasa den astelehenean Eskoriatzako HUHEZI Fakultatean. Izan ere, Humanitate eta Enpresa Zientzietako ikasle ziren Alazne Landa, Maria Ugarte eta Amaia Goxencia. Aurreko ostiralean, hilak 21, eskolak amaitu eta etxera bidean zihozela auto istripuan hil ziren. Elorrioko saiheshidean gertatu zen istripua. Hiru gazteekin batera autoan beste bi lagun zihozaren: Iratxe Aguilar eta Iratxe Bernedo. Horiek ospitalean daude, Iratxe Aguilar oso larri. Astelehenean, esan bezala, gelako kide eta lagunek omenaldi beroa egin zieten istripuan hildako lagunei.

Begiraleak behar ditu Udalak Gabonetarako

Gabonetako parkea antolatu du Udalak abenduaren 26, 27 eta 28rako. Parke horretan lan egiteko begiraleak behar ditu: 18 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea ezinbesteko dira. Interesatuak abenduaren 10a baino lehenago eman beharko dute izena kultura etxean.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantentimientua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Calderería Cantera, S.L. ALUMINIOAK

Zurgintza alumiiioa erabilita

Aingerugarakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA



MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

GATZAGAKO EHIZA DENBORALDIK AMAIERA JO DU

Aurtengo uso denboraldia kaskarra izan dela adierazi dute herriko ehiztariek

AINTZANE GARDOKI

Herriko bi ehiztarekin izan gara amaitu berri den uso denboraldiaz berba egiteko. Juan Mari Makazagak eta Ina Alonsok aurtengo denboraldia oso kaskarra izan dela adierazi digute. Eguraldia oso txarra izan dute usotan egiteko, eta useok beste bide batzuk hartu ei dituzte.

“Urte txarra eskatuta ere ezin txarragoa tokatu”, esan digu hasiaz bat Ina Alonsok. “Fede handia diogu Pello Zabalari. Tenporak ehizarako izugarri ondo gelditu zirela esan zuen; hego-haizea eta sikua. Eder to engainatu gaitu aurtun. Urriko lehenengo astean izan ezik, eguraldi txarra izan dugu. Disfrutatzeko ez dugu aukera handirik izan”, gaineratu du Inak.

Baina urte eskasa izan arren, Juan Mari Makazaga *Pekeño*-k esan digu azaroaren 4an izan zen uso pasea ikusgarria izan zela: “Gutxitan ikusi izan dugu Gatzagako zerua egun hartan moduan. Hura bai izan zen disfrutatzekoa! Zeru osoa zen uso bando bat. Ikustekoa izan zen, ez ehizatzeke, usoak oso goitik pasatu ziren-eta”. “Milaka eta milaka uso ikusi genituen. Disfrutatzeko modukoa izan zen, baita tiro batzuk egiteko modukoa ere, baina halako zalaparta handia sortu zen, useok ere gora egin zuten”, gaineratu du Alonsok.

“Egia esan, aurtengo denboraldiak ez du zerikusirik izan iazko denboraldiarekin. Aurtun askoz uso gutxiago harrapatu ditugu. Izan ere, bezeroek eskuetatik kentzen dizkigute usoak, eta aurtun ezin izan dugu eskaera hori bete”, esan du Alonsok.

MASIFIKAZIO HANDIA GATZAGAN

Gatzagar horiek beste kezka baten berri eman digute; hain zuzen, Alonsoren esanetan, Ehiza Federazioetik aspaldian egiten den gestioa ez da batere ona. “Gatzagak ospe handia du, uso pase handiko lekua baita. Baina gero eta ehiztari gehiago batzen dira hemen. Guk 18 postu ditugu eta beste 57 postu ditu Federazioak; baina ahal izanez gero, gehiago jarriko lituzke. Guk kalitatezko ehiza egitea aldarrikatu gura dugu. Gaur egun masifikazioa gero eta handiagoa da. Ehiztari guztiok dugu ehizan egiteko eskubidea, hori ez dut zalan-tzan jarriko, baina kalitatea ezin dugu ahaztu”, bukatu du Alonsok.

“Guk, Gatzagako ehiztariok, kalitatezko ehiza egitea aldarrikatu gura dugu”



Aurtengo uso denboraldian bizi izandakoen berri eman digute Juan Mari Makazaga *Pekeño*-k eta Ina Alonsok.

GOIENAN HERRIZ HERRI: ARETXABALETA

Arritxu Oleden, Aretxabaletako alkatearekin berbetan

Martitzenean, abenduaren 2an 20:30ean

Aurkezlea: Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa: 943 71 23 93

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko duzu!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:

ARKUZ
ARRASATE-ARETXABALETA



Zer espero duzu Gabonetan



Aitzorrotz elektronika

Alboka gazte moda

Ana's jantzi denda

Angelines autozerbitzua

Aretxabaleta iturgintza

Asensio jantzi denda

Begiondo optika

Calderon Soledad autozerbitz.

Errasti kioskoa

Errekabarren fruta denda

Etxabe harategia

Gantxegi harategia

Gemes edertze aretoa

Gertu janari prestatuak

Haurrak umeen moda

Ibarra estankoa

Iber loteria

Imanol janari denda

Iriarte umeen denda

Irudi ileapaindegia

Jauregi okindegia

Jon harategia

Josu harategia

Kixkur ileapaindegia

L-10 ileapaindegia

La Brasileña akeita etxea

Lasai masajeak

Leibar arraindegia

Leintz mertzeria

Leniz liburudenda

Mari Karmen oinetakoak

Maritxu mertzeria

Martin erlojudenda

Miren Zuriñe bitxitegia

Nerian loradenda

Photosynthesis argazkilaritza

Txilarra dietetika

Zainduz osasuna/fitnessa

Zare artegintza

Zubia oinetakoak





UDA-BERGARA

Aretxabaletarren eta bergararren arteko derbia GOITBn



**Ikusiko
duzu!**

UDA-BERGARA
Aretxabaletako laguntzaileak: Aretz, Azkena,
Basabe Jatetxea, Ezkutu, Gurea, Orly, Zارايا.
Bergarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari taberna.

Domekan, azaroaren 30ean
Ibarra futbol zelaian, 16:30ean.
19:30ean GOITBn